



PRENTSA OHARRA: 2025.07.04

Ireki da hamaikagarren Etxepare – LABORAL Kutxa Itzulpen Sariaren deialdia

- Hautagaiek uztailaren 4tik abuztuaren 27ra arte (biak barne) edukiko dute beren itzulpen lanak aurkezteko aukera.
- Sari banaketa honen xedea jatorriz euskaraz idatzi eta argitaratutako literatura obra baten itzulpen-lana saritzea da, euskarazko lan bat nazioartean sustatzeko helburuarekin batera.

Etxepare Euskal Institutuak eta LABORAL Kutxak elkarlanean sortutako Etxepare – LABORAL Kutxa Itzulpen Sariaren deialdia ireki da eta hautagaiak aurkezteko epea abuztuaren 27ra arte izango da zabalik. Ekimenak jatorriz euskaraz idatzitako literatura-lanen itzulpenak saritzea du xede, itzulpenak baitira euskal idazleak eta euren lanak nazioartean ezagutzera emateko zubia.

Nazioarteko itzultzaile eta argitaletxeak aurkez daitezke sarira, betiere ondorengo baldintzak betetzen badituzte: aurkeztutako liburua jatorriz euskaraz idatzitako eta argitaratutako literatura-lan baten itzulpena izatea, eta itzulpen hori 2024. urtean argitaratutakoa izatea. Eskabideari dagokionez, itzultzaileak berak, argitaletxeak edota liburugintza, literatura edo itzulpengintzaren arloko beste eragileren batek egin ahal izango du.

Saria 4.000 eurokoa izango da, eta zenbateko hori argitaletxeak eta itzultzaileak erdibana jasoko dute. Izan ere, saridunak nortzuk diren erabakitze orduan aintzat hartuko dira bai itzulpenaren kalitatea, baita literatura-lana argitaratu duen argitaletxeak egindako sustapen plana ere. Halaber, 2.000 euroko laguntza jasoko

dute saridunek saria jasotzera Euskal Herrira etortzeko edota literatura-lana argitaratu den herrialdean sustapen lanarekin jarraitzeko, hau da, aurkezpenak, publizitate kanpainak, hedabideetako elkarriketak, etab. burutzen laguntzeko.

Sari banaketa ekitaldia Itzultzaileen Nazioarteko Egunaren inguruan egingo da, Etxepare Euskal Institutuak eta LABORAL Kutxak adostutako lekuan eta egunean. Epaimahaia, berriz, itzulpengintzaren arloko, Etxepare Euskal Institutuko eta LABORAL Kutxako hainbat ordezkari osatuko dute.

Sariaren oinarriak www.etxepare.eus webguneko 'Deialdiak' atalean eskuragai daude gaurtik aurrera.

Aurreko urteetan itzultako lanak:

2024

Estibaliz Lizaso eta Pol-len edicions argitaletxea

'Kontrako eztarritik' (Uxue Alberdi)

Saiakera

Katalana

2023

Amaia Gabantxo eta Parthian Books argitaletxea

'Hezurren erretura' (Miren Agur Meabe)

Eleberria

Ingelesa

2022

Mariolein Sabarte Belacortu eta Zirimiri Press argitaletxea

'Amek ez dute' (Katixa Agirre)

Eleberria

Nederlandera

2021

Nami Kaneko eta Shinchosha argitaletxea

‘Soinujolearen semea’ (Bernardo Atxaga)

Eleberria

Japoniera

2020

Eider Rodriguez, Lander Garro eta Literatura Random House

Bihotz Handiegia (Eider Rodriguez)

Narrazioak

Gaztelania

2019

Ainara Munt Ojanguren eta Pol·len Edicions

Hilda dago poesia? (Joseba Sarrionandia)

Poesia antologia

Katalana

2018

Amaia Gabantxo eta Center for Basque Studies (University of Nevada, Reno)

Harri eta Herri eta Maldan Behera (Gabriel Aresti)

Poesia

Ingelesa

2017

Yaroslav Gubarev eta Anetta Antonenko

Behi euskaldun baten memoriak (Bernado Atxaga)

Eleberria

Ukrainera



ETXEPARE
EUSKAL
INSTITUTUA



2016

Nami Kaneko eta Hakusuisha argitaletxea

Mussche (Kirmen Uribe)

Eleberria

Japoniera

2015

Isaac Xubín eta Kalandraka argitaletxea

Tempo de exilio (Joseba Sarrionandia)

Poesia antologia

Galegoa

Info+

Mikel Lasa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre zigarrögileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus
www.etxepare.eus